

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

«Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrena» proiektuak 24 artistaren lana erakutsiko du otsailaren 4ra arte Nafarroako Museoan, Jorge Oteiza Museoan eta Huarte Zentroan

Gaur inauguratuko dira bi erakusketak, eta, erakusketez gain, beste 30 jarduera ere eskainiko dira, tartean emanaldiak, bisita gidatuak, tailerrak, egonaldiak, laborategiak eta hitzaldiak

Ostirala, 2017.eko urriak 27

«Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrena» proiektuak 24 artistaren lana erakutsiko du 2018ko otsailaren 4ra arte, lehen aldiz hiru egoitzatan (Nafarroako Museoan, Jorge Oteiza Fundazio Museoan eta Arte Garaikideko Huarte Zentroan) eta hari kontzeptual beraren pean.

Proiektuaren [egitarauan](#) 30 jarduera baino gehiago daude, hiru egoitzetan banatuta.

Artearen Historian doktorea, ikertzailea eta idazlea den Maite Garbayo Maeztu da «Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrena» proiektuaren komisarioa. Proiektua teoria kritiko feministatik abiatzen da, eta zalantzan jartzen ditu emakumeak kontuan hartu ez dituzten ezagutza sortzeko eta transmititzeko modu hegemonikoak.

Erakusketak obra artistiko berriak ditu, baina baita egileek lagatako beste batzuk ere, era guztietako euskarri eta teknikak erabilia egindakoak (pintura, eskultura, argazkilaritza, bideosorkuntza, fanzinea). Horretaz gain, beste formatu batzuetako ekintzak ere egongo dira, hala nola emanaldiak, sortze-prozesuak, tailerrak, egonaldiak, laborategiak eta hitzaldiak.

Erakusketak obra artistiko berriak ditu, baina baita egileek lagatako beste batzuk ere, era guztietako euskarri eta teknikak erabilia egindakoak



Kulturako artistak eta arduradunak erakusketan



Ezkerraldean Gentz del Valleren lana eta esk. Amaia Molineten bideoa

(pintura, eskultura, argazkilaritza, bideosorkuntza, fanzinea). Horretaz gain, beste formatu batzuetako ekintzak ere egongo dira, hala nola emanaldiak, sortze-prozesuak, tailerrak, egonaldiak, laborategiak eta hitzaldiak.

Gaur goizean, inaugurazio ofiziala baino ordu batzuk lehenago, komisarioa eta zenbait artista, hedabideekin batera, bi erakusketetan izan dira, Nafarroako Museoan eta Jorge Oteiza Museoan. Bertan izan dira, baita ere, Kulturako zuzendari Fernando Pérez eta Museo Zerbitzuetako zuzendari Susana Irigaray. Inaugurazio ofiziala arratsaldean izan da, eta Nafarroako Kultura, Kirol eta Gazterriako kontseilari Ana Herrerek egin du.

Proiektua topagune gisa proposatu da, gure errealitatea zalantzan jartzen duten eta baztertutako jakintza itzultzea ahalbidetzen duten ezagutza moduak trukatzeko eta aztertzeko eremu gisa. Guztira 24 artistak parte hartu dute, eta artearen eta ikerketaren arloetan dituzten interesetatik abiatuta aztertzen dituzte alderdi horiek. Aurkeztu dituzten proposamen artistiko gehienak berariaz erakusketarako sortu dira.

Nafarroako Museoa

Nafarroako Museoan, artista horien lanekin batera, XVII. mendean Mexikon egindako bionbo kolonial bat ere egongo da, Gendulaingo Kondeen Jauregitik ekarria, eta ezagutzaren kolonialtasunarekin eta modernitateak dakarren hegemonia europar, zuri eta maskulinoarekin erlazionatutako gaiez hitz egiteko. Francis Bartolozzi artistaren «Gerrako marrazkiak» ere ikusi ahal izango dira, eta, gaur egungo artisten lanekin batera, gure lurraldeko emakume artisten genealogiak eraikitzeke aukera ematen dute. Bestalde, obra horiek ez ezik, Museoko bilduma historikoa ere badago, eta haiek guztiek museoan ikuspegi okertu eta desbideratuak proposatzen dituzte ezagutza ofizialaren eraikuntza-gune gisa, objektuak beste era batera ikus daitezkeen.

Erakusketak iraungo dituen hilabeteetan, Nafarroako Museoak bisita gidatuak, artisten hitzaldiak (besteak beste, Bracha Ettinger edo Marisa Belausteguigoitia), tailerrak (Bitartean eta Gentz del Valle), eta komisarioarekiko topaketa eskainiko ditu. Jarduera horiek doakoak dira, toki kopurua bete arte.

Nafarroako Museoa doan bisita daiteke erakusketak iraun bitartean.

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

Jorge Oteiza Fundazio Museoan, zazpi artista jarriko dira Jorge Oteizaren aurrean, eta beren interes artistiko eta pertsonalak, esperientzia eta trebakuntza, eta estimua erakutsiko dituzte.

Artea ezagutzeko modu gisa ikusten duen Oteiza hori hartzen du aintzat erakusketak, hezkuntza estetikoak funtsezko pedagogia gisa ikusten duen hori, baina baita mugako pedagogia kontrahegemoniko gisa ikusten duen hori ere, hurbilen duten ingurunearekin kritikoak eta konprometituak diren subjektuak sortzeko gai dena. Oteiza hori zenbait forma eta tradizio lokaletara itzultzen da, eta jakintza modu gisa kokatzen eta legitimatzen ditu, diskurtso zentrala eta arrazionala kolokan jartzeko gai dena. Era berean, artea eta euskal identitatea birformulatzen duen Jorge Oteiza hori eteten saiatzen dira artistak, baita haren legatu estetikoak eta eskultorikoak ere.

Zentro honetan, bisitak eta tailerrak egingo dira.

Arte Garaikideko Huarte Zentroa

Arte Garaikideko Huarte Zentroak «Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrena» proiektuaren ildo kontzeptualekin erlazionatutako lan artistikoko eta ikerketa-laneko prozesuak biltzen ditu. Zentroak ohiko programetara (Habitación, Akanpada eta Aperitifak) egokitu ditu erakusketa honen edukiak. Ohiko programa horietan, herriaren jakintza eta jakintza tradizionala berrezartzeko prozesuak edo feminismoekin, ezagutzaren dekolonializazioarekin edo erresistentzia modu desberdinekin erlazionatutako gaiak aztertzen dira. Gainera, ilustrazioari eta autoedizioari buruzko tailerrak ere badaude. Urrian, Huarte Zentroak Maloficio egonaldi artistikoa izan du; bertan, hainbat artistak parte hartu dute, hala nola Rurru Mipanochia, Gelen Jeleton, Liébana Goñi, Cristina Jiménez eta Irati Fernández Gabarain, eta fanzine kolektibo bat prestatu dute, Nafarroako sorginkerriaren historia azaltzeko.

Erakusketari buruzko informazio guztia ikusteko, sakatu [esteka](#).